

Gazteentzako deskontuak eskaintzen dituzten txartelak

1. [Gazte Txartela](#)

2. [ISIC txartelak](#)
 - 2.1. ISIC. Nazioarteko ikasle-txartela
 - 2.2. Nazioarteko IYTC txartela
 - 2.3. ITIC. Nazioarteko irakasle-txartela

3. [Aterpekide txartela](#)

1. Gazte txartela

Gazte-txartela European homologatuta dagoen Euskadiko gazte-txartel bakarra da, European Youth Card Association (EYCA) elkartearen barne baitago. Beraz, titularrek **Europako hainbat herrialdeetan** gazte-txartelen abantailak balia ditzakete.

14-29 urte badituzu eta Euskadin bizi bazara txartela hau eskuratu dezakezu. 30 urte betetzen dituzunean iraungiko da eta 6 euro balio du.

Gazte Txartelak eskaintzen dituen abantailak:

- ✓ Deskontu iraunkorrak Euskadin (kultura, kirola, garraioa, ostatua, prestakuntza, osasuna, turismoa...)
- ✓ Gazte-txartelaren Packa. Deskont-kupoi berezien taloitegia da, hainbat establezimendu eta zerbitzutan erabiltzeko.
- ✓ Lehiaketak eta zozketak. Bidaiak, ikuskizunetarako sarrerak, liburuak, teknologia...
- ✓ Bidaia-asegurua, mundu osoan baliagarria.
- ✓ Abantailak Euskaditik kanpo, beste Autonomia Erkidegotan eta Europako hainbat herrialdeetan.

Gazte Txartela On Line eskuratzen da, Eusko Jaurlaritzako Gazteakera web orrian.

[Gazteakera](#)

[EYCA](#)

2. ISIC txartelak

2.1. ISIC. Nazioarteko ikasle-txartela

Txartela hau unibertsitateko, irakaskuntza ertainetako (DBH, batxilergoa, LH,...) eta eskola ofizialetako ikasleentzat da. Astean gutxienez 15 orduz aritzea derrigorrezkoa da.

Mundu osoan onartuta dagoen txartela honekin deskontu eta zerbitzu bereziak izango dituzu (garraioa, ostatua, museoak, antzokiak, kultur guneak ...)



Nazioarteko ikasle-txartelak urte bat irauten du eta prezioa 11 euro da.

Beharreko datuak:

- ✓ Izen abizenak
- ✓ Unibertsitate edo eskolaren izena
- ✓ Jaoitze data
- ✓ Emaila

Aurkeztu beharreko agiriak:

- ✓ NAN Txartelerako neurriko argazki bat , funts zuriarekin ahal izan ezkerro (JPG edo PNG formatua).
- ✓ Ikasle zarela egiaztatzen duen agiria:
 - Matrikula akademikoa
 - edo notak, tituloak, eta abar.

Online eta baita espedizio punto fisikoetan eska daiteke. Adibidez, Araban OMIJ, Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan atera dezakezu. Beste toki batzuri buruz informatzeko begiratu ISIC web orrialdean.

2.2. Nazioarteko IYTC txartela

Ikasten ez duten gazteentzako txartela da. Bere ezaugarriak eta eskuratzeko prozedura ISIC Nazioarteko ikasle-txartelarenak bezalakoak dira.

2.3. ITIC. Nazioarteko irakasle-txartela

Irakasleentzako txartela da, hau eskuratzeko aurrekoekin jarraitzen den prozedura bera jarraitu behar da. Irakaslea zarela egiaztatzen duen agiria beharrezkoa da. 11 euro balio du.

[ISIC](#)

3. Aterpekide txartela

Gazteentzako Aterpetxeen Nazioarteko Federazioaren edozein aterpetxean ostatua hartzeko aukera eskaintzen du, mundu mailan.

Kategoriak:

- ✓ Gaztea: 14-29urte. 5 euro
- ✓ Gaztea: 2,50 euro Gazte Txartela dutenentzat.
- ✓ Heldua: 30 urte baino gehiago. 10 euro.
- ✓ Taldea: Gutxienez 10 pertsona. 16 euro. Eusko Jaurlaritzako Gazte Erakundeen Erroldan izena eman duten elkarteentzat txartela doakoa da.
- ✓ Familia: 14 urte baino gutxiagoko seme-alabadun familia-unitatea. 18 euro.

Beharrezko agiriak:

- ✓ NANA, pasaporte edo bizileku-txartela.
- ✓ Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.
- ✓ Familia liburua (familia txartela egiteko).
- ✓ Erroldan izena eman izanaren kopia gazte elkarten kasuan.
- ✓ Taldeen kasuan, taldearen kideen zerrenda.

Txartela hauek Araban eskuratzeko tokiak:

- ✓ OMIJ. Vitoria-Gasteizko Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa

Txartelak online lortzeko:

- ✓ Reaj sareko aterpetxetan.
- ✓ Gazteaukera web orrian.

[Gazteaukera](#)
[REAJ](#)